

*Juan Guisasola Ariznabarreta Txoko*

*Eibar, Gipuzkoa  
(1917-2002)*

Aurkibidea

**Biografia**



Juanito Gisasola "Txoko", CDE-ko kide zen. Arrateko Igoeraren antolatzailea; Frantziako Tour-eko antolaketan 9 urtetan parte hartutakoa; eta abar. Kirol munduan lan asko egindakoa. 2002ko ekainean zendu zen.

## Zintak

### AB-108

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Data:**
- **Iraupena:** 55 min
- **Euskarria:** Audio Analog

### AB-266

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2001-01-19
- **Iraupena:** 77 min
- **Euskarria:** Hi8
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

### AB-267

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2001-01-19
- **Iraupena:** 70 min
- **Euskarria:** Hi8
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

### AB-277

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2001-05-29
- **Iraupena:** 81 min
- **Euskarria:** Hi8
- **Kodifikatzailea:** Altzibar, Maider

### AB-278

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2001-05-29
- **Iraupena:** 55 min
- **Euskarria:** Hi8
- **Kodifikatzailea:** Altzibar, Maider

## Pasarteak

### 1. Lehenengo urratsak bizikleta gainean

- **Erref:** AB-108/002
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:01:08. **Bukatu:** 00:02:26
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

**Laburpena:**

<p>Aitak bizikleta nola erregalatu zion azaltzen du Juanitok eta Untzagan bizikletarekin okerkeriak nola egiten zituen gogoratzen du. Jendeak "xemeikua" (garaiko txanpona) ematen zion. Gerora Gerra Zibila etorri zen eta Eibartik kanpo joan behar izan ziren, Hendaiara.</p>

**Transkripzioa**

- Eibarren jaio zen 1917ko irailaren 13an eta horrek esan nahi du Juanito Gisasola "Juanito Txoko" jada urtetan aurrera doan laguna dugula eta 76 urte eginak dituela. Gaur, batez ere, bizikleta kontuez hitz egin behar dugu, Juanito. Eta lehenengotik esaidazu, zure gazte denbora eta zure txikitako kontuak hemen, Eibar aldean, nolakoak izan ziren. Zertaz akordatzen zara?

- Ni akordatzen naiz... Granujia nintzan eta pixkat okerra. Baiña bizikletia aittak erregalau estan eta harekin bizikletiañ hasi nintzan hónek zirkoko gauzak egitten. Untzaga plazan egitten nittuan bizikleta gaiñian: bizikletia bota eta jaiki. Egitten nittuan eta jentia, pozik. Eta batuk xemeiko bat emoten estan eta bestiak perrotxo bat, baiña ni, pozik. Aittak beti bronkia, hórrak gauzak egitten nittualako, baiña ni pozik. Eta gero, holan denporia etorri zan eta gerriak urten eban. Ibili nintzan gerran eta han Gijonetik, ba, hanka egin bihar. Eta Gijonetik Franzara jun nintzan eta han arrebria nekan, Hendaian. Pistola fabrikia zeken. Eta egon zan fabrikia, Ollagarena, fabrika haundixa. Eta han egon nintzan, ba, urte batzuetan.

**2. Txirindularitza munduarekin lehenengo kontaktua**

- **Erref:** AB-108/003
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:02:26. **Bukatu:** 00:04:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Txirindularitza

**Laburpena:**

<p>Behin Hendaiatik Pauera joan zen bizikletan eta txirindulari batzuekin elkartu zen. Txirindulari ona zela eta lasterketan parte hartzera animatu zuten. Lehenengo lasterketan parte hartu eta irabazi egin zuen gainera. Etxean ez zitzaien gehiegi gustatzen Juanito lasterketetan aritzea eta ondorioz txirindularitza uztea erabaki zuen. Garaiko beste kontu batzuk ere gogora ekartzen ditu.</p>

**Transkripzioa**

- Eta han be bizikletia gustau egitten jatan. Eta behin, holaxen, jun giñan bizikletan, zerera juañ giñan, a Pau. Eta bizikletan. Eta bueno, ba, juañ. Neu be bai, konforme. Eta bizikletan goiazela, ba, han korredore bat juntau zan gurekin eta ikusi estan harek... ikusi niñuan zelan ibiltzen nintzan [...]. Eta esaten desta: "Hi, hi", franses esan estan eta nik orduan pixkat aitzen neban. Esan estan: "Hi, hi. Parte hartu bihar dok karreretan". Eta badakizu: "Lagaidak bakian". "Bai, gizona, etorri hari eta etorri". Eta holaxen parte hartu neban. ETa gero [...] egin estezen jaramonak, egin estezen papelak eta gauzak arreglau esten eta hasi nintzan, ba... Lehelengo karreran egin eben, ba, bastante karrera luzetxua zan: ez dakit [nora zan], ba, 90 kilometrokua-edo zan, eta egin neban eta, nundik nora, nik karrera irabazi! Neuk ez neban sinisten nere buruakin.

- Eta zan korritzen zenuen lehenengo karrera, ezta?  
- Lehelengo nere bizi guztian. Karrera moduan, lehelengua. Eta gero han egon zan "contrarreloj" Hendaia-San Juan de Luz, San Juan de Luz-Hendaia, eta han egin neban hirugarren. Eta gero beste karrera baten be bigarren egin neban eta beste baten lau ta... Eta etxian, ba, arrebia hasarre eta... ez zan gustatzen holan ibiltzia ta... Eta ez dakizu? Gaiñera, gu han refujiauak giñazen eta ez giñazen... eurak ez zeren itxuria pozik edo, nik ez dakit ze pasau zan. Nik, bueno, esan neban: "Ez noia gehixago parte hartzera". Gero handik kantuan hasi nintzan eta Franzian, Hendaian, egon nintzan hiru urtian eta pozik.

### 3. Bizikletagintzaren garrantzia Eibarko ekonomian; txirringintzaren eibartarrak

- **Erref:** AB-108/005
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:05:20. **Bukatu:** 00:07:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai

#### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria

#### Laburpena:

<p>Txiki-txikitatik izan du txirringintzarako zaletasuna. Aitak berari eta anaiari GAC bizikleta erregalatu zien. Gerora etorriko ziren BH, Orbea... Eibarren, eskopetagintzak eta bizikletagintzak garrantzi handia izan dute beti. Eibarren bizikletak egin bai, baina txirringintzaren gutxi atera direla dio. Gerra aurreko txirringintzaren ezagunak Eibarren: Felix Gojenola, Mardaras...</p>

#### Transkripzioa

- Hala ere, Juanito, ikusi dut txiki-txikitatik izan zenuela zuk bizikletarako afizioa. Ez?  
- Askok. Nik beti.  
- Eta hori zergatik zen? Eibarren halako giro berezia zegoen ala zuk eduki zenuen afizioa?  
- Bai. Orduan ba... Ni... Gerra aurrian, ba, bizikletak egiten hasi zan - gaiñera nere aittak erosi estan- Bicycles GAC. Haixe izan zan lehelengo fabrika Eibarren hasi zana. Eta aittak haixe erosi estan errege egun baten. Granuja nintzan. Neri eta nere anaiari, bizikleta bat bixondako. Baiña nik afiziño gehixago nekan anaiak baiño eta han ni ibiltzen nintzan. Bueno. Orduantxe hasi zan bizikleta egiten. Gero, gerra ostian, bueno, gerra ostian, etorri zan hau jokieriau: Orbea be hasi zan, BH hasi zan... Eta Eibarren egozen, ba, fabrika mordua. Bueno, fabrika mordua... Akzesorixo zelan esaten dan euskeraz ez dakitt, baiña bizikletiandako: batak pedalak egiten zittuan, bestiak erroberak, bestiak egiten zittuan kuadrak, bestiak... Eibarren zulo guztietan bateron batek, batak edo bestiak, zegozer egiten eben bizikletiandako.  
- Eta jende guztiak ere izango zuen Eibarren bizikleta orduan.  
- Baaai. Orduan, orduan izan zan, Eibarren mundu gehixena-gehixena bizi zan eskopetiakin eta bizikletiakin.  
- Eta mutikoentzat, beraz, deporte egiteko aukera on bat. Eta ziklistak ere aterako ziren horrexegatik hemen.  
- Ez, hamen ez da egon askorik. Orduan, gerra aurrian, gerra aurrian, nik ezagutzen nittuan -ni granujia nintzan eta-, nik gerra aurrian hemeretzi urte, hamasei urte, hamazazpi urte nekazen, baiña orduan ezagutzen nittuan Eibarren Felix Gojenola, Mardaras, `Basarri´ eta beste holakotxe...

Baiña Eibartik ez dau urten ziklistarik. Bizikletak egin, bai. Egin artalen moduan, garixan moduan egitten ziran bizikletak. Baiña ziklistarik ez eban urten.

#### 4. Eibarko Klub Deportiboa eta Arrateko Igoera

- **Erref:** AB-108/006
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:07:21. **Bukatu:** 00:10:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

##### **Gaia(k):**

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Bizikleta-fabrikak

##### **Laburpena:**

<p>1943 inguruan "Club Deportivo" a Kalbetoi kalean zegoen. Txirrindularitza sailerako norbait behar zutela esan zioten, eta bertan hasi zen. Arrateko Igoeraren hastapenak azaltzen ditu: bidea oraindik harrizkoa zen; sariak zenbatekoak ziren, etab. Garaiko txirrindulari ezagunak zeintzuk ziren aipatzen du: Mancisidor, Langarika... Laster hasi zen diru-iturri berrien bila; gauza asko zeuden egiteko.</p>

### Transkripzioa

- Gerra bukatu eta handik gutxira hasten da Arrateko igoera. Zu tartean zaude, organizazioan. Nola hasten zara, Juanito, pixkanaka-pixkanaka bizikleta munduan eta karrera munduan sartzen?

- Ba esango detsut. Gaiñera, nahi dot jentiak jakin deixan ze lan emoten daben gauzak egitteko. Orduan denporan ni anaian tabernan nenguan. Eta zan "el año..." 43 edo hortxe zan -1943-44, hortxe-. Eta etorri jatazen Klub Deportibo... Orduan Klub Deportibua eguan "calle Calbeton". Eta zan ezer be ez. Soziedadiak eukiko zittuan 50 metro kuadrau, altuena. Ez zekan gehixago. Eta handik diar egin esten esateko, ba, komis... ziklismuan gizon bat falta jakuela eta lehen egon zanak alde egin dabela eta ia ni hasiko nintzan. Bueno, zelan nik beti euki doten barruan, bihotzian, zeozer egitteko gogua, geldirik egon ezin, umetatik be ez, ba bueno, baietz. Hasi nintzan eta holaxen: "Subida a Arrate" hartu nebanian, ikusi neban eta etorri ziran, ba, orduan nik orduan ezagutzen nittuan korredoriak: Mancisidor, Langarika, Langara, Trueba eta hórrek. Eta egin zebeu subidia. Eta gaiñera subida, karretera, kamiñua, Arratera harrixa zan.

- Asfaltatu gabe.

- Bai, bai. Asfalto barik. Eta hárek ikusi, holan, gora igotzen...

- Ia ziklo-krossa baino okerrago!

- Bueno, eta zelan igo? Eta zelako burruka...? Burrukan. Sartu jatan barru-barruan eta esan neban: "Ene, hónek gizonok, hónek gizonok merezi juek hau baiño gehixago". Eta hasi nintzan, ba... Gaiñera -esango dot-, hárek egitten eben lana eta lehelengo premixua, 50 duro. Bigarrenak zekan 40 duro. Bestiak, 175 pezeta. Bestiak... Bueno. Esan neban: "Hónek gehixago merezi juek". Eta nik beti zelan euki doten, eta ez dakat lotsarik esateko, arpegixa euki doten, hasi nintzan diru billa: batari juan eta bestiari bestia eta zeozer gehixuago jaso neban. Eta karreteria, kamiñua be, pixkat arreglatzen neban: Diputaziñora juten nintzan eta egitten nittuan ahalegiñak ha kamiñua arreglatzeko. Eta bueno, pixkat urtero-urtero ezin dot kontau dana, bestela egongo nintzake hiru bat egunian hamentxe zueri hizketan. Baiña esaten detsuet: pozik egin dot egin dotena; egin dittuten gauzegaittik pozik nago.

## 5. Juanito "Txoko" Espainiako Itzulian

- **Erref:** AB-108/007
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:10:15. **Bukatu:** 00:12:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Bizikleta-fabrikak

### Laburpena:

<p>Espainiako Itzulian ("Vuelta a España") egindako lana zein izan zen azaltzen du. El Correo España- El Pueblo Vasco arduratu behar zen lasterketaren jarraipena egiteaz eta Juanito Gisasola jarri zuten txirringularien eta antolakuntzaren arteko lotura lanak egiten; epaile-arbitro bezala, alegia. Harrezkero, 9 urtean zehar jardun zuen Espainiako Itzulian parte hartzen. Euskal Herrian txirringularitzak garrantzi handia izan du beti Juanitoren esanetan.</p>

### Transkripzioa

- Esango dugu, Juanito, Espainiako Vuelta asko egin dituzula. Juxtu, bederatzi. Gaur hasi da Espainiako Vuelta. Zein zen "Vuelta a España"-n zuk egiten zenuen lana? Zer lan egiten zenuen? Eta kontaguzuzo zerbait orduko Vuelta haiez.

- Bueno, hamen zerak orduan, Bilboko 'Correo Español'a, 'Correo Español-El Pueblo Vasco', horrek hartu eban jaramona "Vuelta a España" egitteko. Eta ni zelan motuan ibiltzen nintzan hamengo inguruetako karreretan, Luis Bergaretxe zan orduan hango, 'Correo Español'eko, direktore, bueno "Vuelta a España"-n... Ez! Lehelengo Aletxo Etxeberria izan zan, lehelengo direktoria "Vuelta a España"koa, lehelengua. Alejandro Etxeberria, Aletxo Etxeberria. Gero harek egin eban urtebete eta gero Luis Bergaretxek hartu eban. Eta nik orduan... Alejandro Etxeberriak zelan entzunda ekan, ni ibiltzen nintzan batera eta bestera, eta diar egiñ esten. Jun nintzan eta esan estan: "Bueno, bai, hi!". Zelan esplikatzen natsen zelan dan hau eta bestia, zegaittik nik reglamentuak ondo nekixazen eta . Esan estan: "Bueno, hi, nere enlaze jarriko haiz. Eta juez-arbitro nahi badok egittia San Romanekin batera...". "Bai, bai. Ni konforme. Ha juango da aurrian eta ni atzian. Eta biren artian hobeto egingo dogu". Eta holaxen. Eta holaxen hasi nintzan eta gero berak, Bergaretxek, konfianza haundixa hartu eban nerekiñ eta periodistak be bai, danak ezagutzen nittuan . Eta hango komisarixuak be bai. Gaiñera, errespetuaz hartu bihar zendun bestiak be egin eben lana egin zeixen. Ez zan, diziplina ez zan zera. Zan borondatia eta. Han juaten zanak ezer be: berrogei duro kobratzen zittuan barren! Ez zan ezer be. Baiña juaten zan jentia gustora. Hárek hasierak "Vuelta a España"kuak, gerra ostekuak, jentia pozik. Gaiñera, ziklismua sartuta eguan hamen. Ziklismua Euskal Herrixan asko sartuta eguan. Holaxen egin nittuan... Bedratzi urtian "Vuelta a España"n ibilli nintzan.

## 6. Espainiako Itzulia Eibarren

- **Erref:** AB-108/009
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:15:03. **Bukatu:** 00:17:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

### Laburpena:

<p>Espainiako Itzuliaren etapa bat Eibarren amaitu zen behin. Ipuruan egurrezko belodromoa jarri zuten eta kontu horren inguruko hainbat azalpen ematen ditu.</p>

### Transkripzioa

- Aizu, Juanito, garai hartan "Vuelta a España"-ko etaparen bat, bat baiño gehiago ere, Eibarren bukatu zen. Eta horixe kontatu behar didazu. Eibarrek bere garaian, Ipuruan oker ez baldin banago, belodromoa bazuela. Egurrezko belodromoa montatzen zen. Kontaidazu, orduan, zer dela eta, nolatan eta nundik ekarritako belodromoa montatzen zenuten.

- Lehen esan doten moduan, Bergaretxek-eta "Vuelta a España"k zeken "velódromo portátil", zeken. Leku batzuetan haxe ipintzen eben, Ilegadia egitteko, dirua batzeko, kanpo fooballetan eta zerian. Behin San Mamesen be egin zan Ilegadia, "Vuelta a España"koa.

- Atotxan ere bai.

- Bai. Eta hamen Eibarren nik ikusten neban, koño, Eibarren be kanpo-fooballa eta nahi neban Eibarren etapa bat "Vuelta a España" kua etorri deixala. Eta halaxen berba egin netsan Bergaretxeri eta bestia Albenizi-eta egin netsen berba eta esan esten: "Bueno". Eta etapa bat ipiñi eben Eibarren, Eibarren. Eta, efektibamente, nik ha belodromua alkilau egin netsen "Vuelta a España" kueri. Neu barruan nenguan, baiña alkilau egin netsen. Eta ha belodromua pagau neban 125.000 pezeta. Alkilerra.

- Eta zer zen? Egun baterako?

- Egun baterako. Gaiñera etorri ziran aurreko egunian montatzera eta ikusgarri. Preparau neban sartzeko lekua, egurrekin eta Aiuntamientuak lagundu estan brigad...

- Dena egurrezkoa, ezta? Peralteak eta guzti.

- Bai, bai, dana, dana. Dana egurrezkoa zan. Dana egurrezkoa. Eta holaxen egin zan Eibarren lehelengo zera, etorrixa, "Vuelta a España" kua.

- Zenbat urtez jarri zenuten belodromoa?

- Baten. Bueno, ez. Gero, "Subida a Arrate" egin eta arratsaldian belodromua ipintzen genduan. Bueno, belodromua eukitzen genduan kanpo-fooballian. Eta harek emoten eskun dirua korredorieri pagatzeko. Zegaittik eze "Subida a Arrate" n ni hasi nintzanian -aurrerago ez zan pagatzen-, baiña ni hasi nintzanian bene-benetan "Subida a Arrate" k indar haundixa hartu ebanian... Zegaittik eze ezin leike, jentia gaur egunian ezin leike sinistu be egin, ze indar zekan orduan denporan "Subida a Arrate" -k.

## 7. Juanito "Txoko" eta Frantziako Tourra

- **Erref:** AB-108/010
- **Iraupena:** 0:06:25. **Hasi:** 00:17:12. **Bukatu:** 00:23:37
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

### Laburpena:

<p>Frantziako Tourra. Juanito Espainiako Itzuliko antolakuntzarako datuak jasotzera joan zen Frantziara (antolakuntzaren inguruko zehaztasunak eta abar). Hasiera batean lasterketa 4 egunez jarraitzeko baimena eman zioten; gerora, Tour osoa jarraitzeko aukera eskaini zioten. Pare bat anekdota kontatzen ditu. Italiako Giro-an, Marokora Itzulian ere parte hartu izan zuen. Guztira 21 urte egin zituen moto gainean txirrindulari lasterketak jarraitzen.</p>

### Transkripzioa

- Geroxeago bueltatuko gara "Subida a Arrate" ra, Juanito. Baina nahi nuke buelta handiagoez hitz egin. Pixka bat hitz egin dugu Espainiako Vueltaz eta Tourrak ere egin dituzu, Frantziako Tourrak, hiru. Gaur egun askotan aipatzen da, ranking bat egiterakoan, aurrena Tourra dagoela, gero Giroa eta hirugarren tokian Espainiako Vuelta dagoela. Garai hartan zer diferentzia zegoen Tourraren eta Espainiako Vueltaren artean, Juanito?

- Bai, bai. Neretako bai.

- Organizazioan eta...

- A! Tourra?

- Kontaidazu zer diferentzia zegoen.

- Tourra asko. Neri "Vuelta a España" baten Bergaretzek esan estan - direktoriak, "Vuelta a España" kuak -: "Hi, "Vuelta a Francia" n hartixaz

datuak zelan juaten diran abituallamentukuak, zelan juaten diran hónek mekanikuak, zelan juaten diran. Ekipajien trasladiak-eta zelan egitten dittuen". Eta ni jua nintzan notak hartzen. Pixkat alkahuete moduan jua nintzan, baiña...

- Ikasteko.

- Ikasteko eta ekartzeko hona hango jaramonak, hango zerak zelan egitten eben. Zegaittik ni... Lehelengo esango dot, gaiñera, ze indar zekan "Vuelta a Francia"k. "Vuelta a Francia" zan neretako... Lehelengo jua nintzanian motuan, nik entzun neban, erderaz esaten dan moduan, "El primer español que viene a la vuelta Francia en moto".

- Zu zinen hori?

- Holan esaten eben. Nik ez dakitt, holan esan esten. Periodistak be esaten esten horixe, egixa zala. Lehelengo urtian, esango dot hau... Ze indar dakan ointxe konturatuko zarie entzutzen zagozienak, danok, radio-oyente guztiok. Jua nintzanian emon esten lehelengo egunian lau egunerako [baimena] bakarrik. Sekretarixua zan Garnault eta harek, horrek sekretarixuak, Garnault-ek, emon estan lau egunerako. Eta nik esan netsan: "Baiña lau egun, zelan baiña?". Eta etorri nintzan [...]. Kartak eta hartu zittuen, "Vuelta a España"ko zer guztiak eta federaziñotik eta nere esaerak eta informe guztiak emon zittuanak. Lau egunerako. Pasau ziran lau egun, laugarrengo egunian, laugarrenian, motuan nindoian, eta karreran eta. Baiña lehelengo egunian, esango dot daneri: hau da karreretara juaten dan personia, Kuidau haundixa euki dabela, bai motuan juten bada, bai kotxian juaten bada. Zegaittik ni han, hasi nintzanian lehelengo etapan "Vuelta Francia"n bildurretan jua nintzan. Hori. Asko ibillitta nenguan, baiña bildurretan, eurak gehixago ziralako. Baiña nik bigarrengo egunian esan neban: "Hónek ez dittuk ni baiño gehixago. Ni baiño gehixago ez dittuk hónek". Hasi nintzan barrura sartzen eta "ra" eta bestia eta pelotoia pasau eta bestia, eta esan neban: "Ene! Hónen beste banok ni".

- Bigarren egunerako jada etxean bezalaxe, ezta?

- Ya pentsau neban euren beste gizon nintzala. Eta holaxen. Egixa da hori. Laugarrengo etapan etorri jatan hori, sekretarixua, Garnault. Etorri jatan eta lepuan jo niñuan. Bera be motuan juaten zan. Etapa holan gatzak ziranian bera motuan juaten zan batzuetan. Etorri jatan eta esan estan: "Motard...". ["Motard"] ez, esan estan, franses esan estan -nik orduan franses pixkat egitten neban- eta esan estan: "Motard espagnol, [al finir l'étape vou allez a la permanent]". Esan estan: karrera akabatzen, etapia akabatzen zanian, pasatzeko "oficina permanente"tik. Ofizinatik pasatzeko. Eta, bueno. Orduan txofer juaten zan, 'Correo Español'eko txofer, juten zan Arrien, Gernikakua. Eta Arrienek lagundu estan. Eta... Dioni Arrien zan. Harek lagundu estan. Nik plakak kendu kotxiari, motuari eta negarrak urtetzen estan. Eta han Dionik esaten estan: "Benga, Juanito, trankil, trankill. Hórrek gauzok [...]. Vuelta a Francia hauxe dok", eta bestia. Eta, ene! Negarra. Egixa da hau e! Negarra, malkua, penaz. Jua nintzan hara ofizinara eta egon nintzan han zain eta zain eta zain, leluan moduan, eta halako baten ikusi niñuan horrek, Garnault-ek, sekretarixuak, eta: "Eee! Viens ici! -esan estan- Etorri hona, hona etorri hari, etorri hona. Pasau hona, pasau hor barrura". Eta pasau nintzan barrura eta esan estan -han zegozen lau gizon eta esan esten ia pozik nenguan "Vuelta Francia" segitzen eta bai, pozik nenguala. Eta ia pozik hartuko neban, karrera guztia akabatzia nahi neban. Ene! Zerua zabaldu jatan.

- Egundoko loteria tokatu orduan!

- Bueno. Neri orduan emon baesten esku baten 10.000 duro, 20.000 duro, eta ha plaka beste eskuan, nik plakak hartuko nittuan. Hori egixa, e! Eta esan estan: "Badakizu zegaittik emoten detsuguzen hónek?", franses esan

estan. "Badakizu zegaittik emoten detsugun? Zu ez zara konturatu, zuri egon dira beste motorista bi zu zaintzen, ia zelan ibiltzen zaran, zer egitten dozun karreran. Eta hárek ekarri dabe zure informe onak. Eta horregaittik emoten detsuguz karrera segitzeko papel barrixak eta plaka barrixa". Ene. Urten neban handik... Zuek badakizue zer dan zerua edo... Zer esango detsuet zueri, entzutzen zagozien guztiori? Zuri notizia on bat emoten detsuenian poza hartzen dozu, ezta? Ba nik orduan hartu neban zuk hartzen dittuzun pozak hamar bidar gehixago. Eta egixa da. Hónek barru-barrutik esaten dittut gaiñera. Holaxen. Gero, hurrengo urtian jua nintzarian, nahi zesten ipiñi ezta ezer be. Eta gero, urtiak be aurrera, eta hirugarrena egin neban. Eta gero 62ra jua bihar nintzala eta ez dakizu? Urtiak. Eta motuan hainbeste... Gaiñera salidara motuan jua eta Parisen akabau eta Paristik etxera, Eibarrera, eta hainbeste egunian karreran eta beste buelta bat! Jua Algecirasera motuan, eta pasau estretxua eta Casablancara eta egin buelta, hogeí egunian buelta, Marruecos eta Rabaten akabau eta Rabatetik berriz Ceutara eta Ceutatik puertua, estretxua, pasau eta Algecirastik Eibarrera. Badakizu, motuan eta. Baiña ibili nintzan 21 urtian motuan.

## 8. Arrateko Igoeraren hastapenak

- **Erref:** AB-108/013
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:26:49. **Bukatu:** 00:30:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

### Laburpena:

<p>Arrateko Igoeraren inguruko azalpenak. Hasierako urteak nolakoak izan ziren: txirrindulariek zenbat irabazten zuten... Hasiera batean, Arrateko Igoeran parte hartzea librea zen, baina diru-sarrerak gehitu zirenean gero eta txirrindulari hobeak ekartzen hasi ziren. Klub Deportiboak egindako lana eta, batez ere, herriaren parte-hartzea eta laguntasuna goraiatzeko dituzte. Poliki-poliki indar handia hartu zuen lasterketak. Kazetari ugari etorri ziren Frantziatik, Madriletik... NO-DOa ere etorri zen... Loro&ntilde;o eta Bahamontes txirrindularien arteko harremanak ere zeresan ugari eman zituen orduan.</p>

### Transkripzioa

– Gatozen hain gogoko eta hainbeste satisfakzio eman dizun karreraz hitz egitera, Juanito. "Subida a Arrate"-z hitz egitera. Esan duzu hasieran oso premio txikiak zirela, berrogeita hamar bat duro zirela irabazleentzat eta presupuestoak ere txikiak izango ziren. Zer akordatzen zera lehenengo zifra haietaz? Esan duzu etxe mordo batera, enpresa mordo batera ibiltzen zinetela ate joka, diru eske. Zenbat diru behar zen orduan karrera bat organitzatzeko zure garaian, 1944-45 urte haietan?

– Lehen, lehen esan dot ba. Orduan... Lehen esan dot ba: hárek korredore danok han ikusi eta berrogeta hamar duro... neretako gitxi zan. Eta nik esan neban: "Hau kanbixau egin bihar da". Hau, zegozer. Eta hasi nintzan, ba, batari eske, bestiari eske, bestiari eske, eta jua nintzan pixkaka-pixkaka. Ni ez. Nere komisiñuan hamalau lagun giñazen eta pixkaka-pixkaka. Baiña ni juten nintzan. Sekula ez neban bialtzen iñor. Neu juaten nintzan. Zelan ezagutzen naberen jentia eta fabrikantia [..], neu juaten nintzan. Eta juaten nintzan, esango detsut ba, 86-100 -hortxe ibiltzen zan-

taillar bisittatzen nittuan nik oiñaz. Taka-taka-taka batari. Eta batak emoten zeban, hasi ziran, ba, milla pezeta emoten bestiak bostehun pezeta emoten, bestia... Holaxen, ez dakizu? "Pon y pon se hace un montón". Holaxen, pixkaka-pixkaka-pixkaka: dirua topau, topau, topau. Eta karrera gehitzen, gehitzen, gehitzen. Eta korredore hobiak ekarri. Eta, gaiñera – esango dot-, hasi zanian "Subida Arrate" orduan libre zan parte hartzia. Korredoriak: independientiak eta profesionalak eta libre. Baiña nik ikusi neban ha galde... jentiak ze indar hartu eban "Subida Arrate"k, neri emoten estan inbidixa haundixa –eta egixa esango dot-, orduan Franzian egitten zan "Subida al mont Varon" eta egitten zan beste bat "Subida al mont Ager". Eta hárek izen haundixa eken. Eta nik nere barruan esan neban: "Geu be llegau bihar gaittuk horra. Klub Deportibua Eibarkua honenbeste badok eta. Llegau bihar gaittuk eta". Holaxen, holaxen izan zan, graziak Arrateko Amabirjiñari, hari esker... hari emoten detsaraz eskerrak. Zegaittik gu hórrek lanokin llegau giñan indarra, hain indarra eta hartzera "Subida a Arrate"n, etortzen ziran esango detsuet: periodistak Franziaquak; bat munduan dagonik periodikorik deportibo haundiña, 'L'equipe'; harek periodistia bialtzen eban. Beste bat: 'Tute Sport' Italiakua. Beste bat: 'Miguar Sprint' Franziaquia. Italiatik, Barzelonatik. Barzelonatik etortzen ziran. Eta gero Madrittik etortzen ziran 'Marca', 'Pueblo'... Dana, inguru guztietatik periodista guztiak. NO-DUa be etortzen zan. Oin telebisiñua dan moduan, orduan NO-DUa zan. Ha be etortzen zan. Eta egitten eskuen periodistak eta, propaganda haundixa egitten eskuen Eta Franzian be "Subida Arrate", "Subida Arrate: La Cotte d'Arrate" esaten eban, "La Cotte d'Arrate". Hartu eban indar haundixa. Eta holaxen hasi giñan ya korredore haundixak ekartzen. Nik esaten dot indarrak gehixen emon etsen orduan denporan Loroñok eta Bahamontesek edo Bahamontes eta Loroñok, igual da.

## 9. Bahamontes vs. Loroño; Bahamontes Eibarren

- **Erref:** AB-108/014
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:30:25. **Bukatu:** 00:33:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Bizikleta-fabrikak

### Laburpena:

<p>Loroñok eta Bahamontes txirrindularien arteko gorabeherak. Bataren eta bestearen aldekoak. Eibarren txirrindularitzarako zaletasun handia egon izan da beti. Bahamontes lehenengoz Eibarrera etorri zeneko kontuak.</p>

### Transkripzioa

- Eta horretaz hitz egin behar dugu, Juanito. Loroño eta Bahamontes, Bahamontes eta Loroño. Eta Bahamontesek hemen urte mordoxka baten irabazi zuen: hasi 1958an eta bost urtez segidan irabazi zuen [...]. Esan beharra dago Bahamontista mordo bat zirela eta Loroñista asko ere bai, ezta? Nola zegoen orduan Eibarko bizikletako afizioa?
- Bu! Hamen egoten zan, zer esango detsut ba?
- Zer zen, Athletic eta Real bezala, Bahamontes eta Loroño orduan?
- Bai zera! Gehixago! Zegaittik Realak eta Athletic de Bilbaok ez dabe euki

hain zerik: bastante lagun gehixago izan dira; lagun, gehixago dira Athletic de Bilbao eta Real. Jentiak esango dau hau eta bestia, baiña neretako ez.

- Baina Bahamontesek beti esaten du Loroñorekin ondo konpontzen zela.
- Ez da egixa hori!
- Ez da egia hori?
- Neretako ez. Ez da egixa. Hori ez da egixa. Bixak be, bixak be, bixak be, hor ibiltzen ziran: batak "hi" eta bestiak "hi" eta bestiak "hi" eta. Baiña guri haixe komeni: hárek euki zeixen hori pikiori esaten dan moduan. Orduan jentiak hamen... bata Loroñistia zala eta bestia Bahamontistia zala eta bestia ta... Neri esaten esten Bahamontistia nintzala.
- Hala zinen?
- Bai, ha zan... Bahamontes etorri zanian hona, etorri zan Zumarragatik bizikletan. Eta etorri zan... Zelan esango detsut ba? Hónek ijittuok etortzen dira ba? Ba igual-igual etorri zan: ez diru... Eta etorri zan "Bicicleta Eibarresa"n parte hartzera Bahamontes. Eta etorri zan tarjeta batekin, Madrittik etorri zan: "un tal Bermejo, presidente de la Federación castellana". Haren tarjeta bat ekarri estan, esaten ba...
- Rekomendazioa.
- Bai. Esan neban: "Bueno, hi. Han, bizikletia sartu han tabernan". Txokuan sartu eban eta esan netsan: "Bazkaldu dok?". Eta: "Ez". Bueno, ba, nere andriari esan netsan: "Emoixozu honi jaten edo". Nere andria, nere andria graziak jangoikuari eta daneri... Euki dot andra bat! Nik euki doten andria ez bazan izan izan dan modokua, nik ez neban organizauko ezer be. Ezer be! Ez nintzan juango iñora be. Zegaittik nik egin doten guztia, graziak nere andriari. Hori egi-egixa da. Nik sarri esaten detset eibartarreri, askori esaten detset: "Ni ezkondu nintzanian, Gabonetako loterixia tokau jatan. Eta egixa da. Egixa da, eta ez dakat ardurarik esateko.
- Eta egun hartan, behintzat, Bahamontesi bazkari goxoa eman zenioten.
- Bazkarixa eta, gaiñera, lo nun egitteko Paseo San Andresen guk zekagun interina bat, harek interiniak galdera egiñ etsen nun lo egiñ. Eta esan netsanian ia dirurik zekan, eta ez zekala dirurik, eta emon netsazen hogei duro, emon netsazen. Eta gero portero baten andriak preparau etsan tortillia eta jamon de york eta preparatzen etsan. Entrenamentura urtetzen eban eta... Neri esaten esten ni Bahamontistia nintzala. Ni ez nintzan Bahamontistia. Bahamontes etorri egin zan neregana. Bueno, etorri edo, premiñia ekan orduan eta nik lagundu egin netsan.

## 10. Bahamontes Eibarren

- **Erref:** AB-108/015
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:33:38. **Bukatu:** 00:34:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Bizikleta-fabrikak

### Laburpena:

<p>Bahamontes Eibarren; "Bicicleta Eibarresa". Bahamontes txirrindulariaren inguruko kontuak. </p>

### Transkripzioa

Eta, gaiñera, hor, "Bicicleta Eibarresa"n, ni motuan noiala, hor karreran... Eta hori karreriori irabazi eban Jose Zarak. Eta bigarren egin eban

Bahamontesek. Eta nik ha, Bahamontes, ikusten nebanian Kanpazar igotzen eta Urkiola igotzen-ta, "Bicicleta Eibarresa"ko karreran eta, han Bidania igotzen eta, esaten esten Eibarko "Bicicleta Eibarresa" egitten ebenak: "Hi, Juanito, hi, `Txoko´, hau korredoriau nundik ekarri dok hik?". Eta: "Nik ez juat ekarri. Bera etorri dok". Eta: "Zein dok hau?". Eta: "Bahamontes esaten jetsek ". Bahamontes eta. Etarazu kontua nora lilegau zan Bahamontes! Bahamontes. Eta nik orduan Bahamontes hárek gauzak egitten ikusi eta barruan sartu jatan. Hori edozein personari be. Ze pasau da hamen Urtainekin? Ze pasau da aizkolarixekin? Ze pasau da harri-jasotzailliekin? Perurena... Zegaittik dake hori? Bahamontesek egin egitten eban eta ha egin eban orduan bigarren eta "Premio de la Montaña" irabazi. Eta etorri jatan Bahamontes dirua emotera. Esan netsan: "Ez, eruaixaz danak. Nik ikusi hautena egitten nahikua dok neretako".

## 11. Loroño vs. Bahamontes Arrateko Igoeran

- **Erref:** AB-108/017
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:35:15. **Bukatu:** 00:36:33
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Bizikleta-fabrikak

### Laburpena:

<p>Arrateko Igoerak izen handia hartu zuen Loroño eta Bahamontes txirringularien arteko ika-mikak zirela eta. Hainbat datu ematen ditu.</p>

### Transkripzioa

- Bueno, gauza da, Juanito, "Subida Arrate"ri Bahamontesek eta Loroñok izen handia eman ziotela, batez ere elkarren arteko borroka horrek, ezta?  
- Bueno, normala! Baiña hori... Esango eben: "Bai... - periodistak esaten eben- Hórrek dabixaz ipoiñekiñ eta". Neretako ez zan ipoiña. Ez zan ipoiña. Ez. Hori...  
- Eta, gainera, etorri, irabazi eta record-a ere egin zuen behin baino gehiagotan.  
- Bai, bai. eE ke... ez ekan kontrarixorik igotzen. Hori egixa esan bihar da. Eta neri, esango dot ba, Charly Gaul be etorri zan eta ezin. Eta beste bat: Sagarduikin ekan kontrarixo pixkat, Sagardui bastante ondo ibili zan eta baten irabazi etsan. Zegaittik Bahamontesek zazpi bidar parte hartu eban "Subida Arrate"n. Bost irabazi eta bi bidar bigarren. Bat irabazi etsan Sagarduik eta bestia irabazi etsan -1965ian- Julio Jimenezek, irabazi etsan. Eta hórretxek galderok egin zittuan Bahamontesek. Eta Eibarren jentiak ikusten eban Bahamontesek irabazi ebala, Bahamontesek irabazi ebala, Bahamontesek irabazi. Hor lehen esan dozun... zuk esan destazun preguntia: ba, Bahamontistak eta Loroñistak asko eguazen.

## 12. Arrateko Igoera nazioarteko mailako lasterketa

- **Erref:** AB-108/018
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:36:33. **Bukatu:** 00:37:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Bizikleta-fabrikak

**Laburpena:**

<p>Nazioarteko maila nola hartu zuen Arrateko Igoerak. Laguntasun handia jasotzen zuten herrian eta horri esker gero eta txirrindulari hobeak ekarri ahal izan zituzten.</p>

**Transkripzioa**

- Bueno, eta gero hasten zarete pixkat kategoria internazionalerako ziklistak ekarriz, kanpotik ekarriz. Eta ekartzen duzue Anquetil, Mastrotto, Agostinho, Mortensen, [Boxfol], Poulidor, Gimondi... Zuk esan duzuna: jende asko ekarri duzue. Juanito, kontaidazu pixka bat nola egiten zenituen kanpotik ekarritako jende horrekin kontratuak egiteko, nolatan konbentzitu zenuen jendea Eibarrera eta "Subida Arrate"ra etortzeko?

- Bueno, ba esango detsut: Klub Deportibuan atrebidu giñan hórrek ekartzera, zegaittik nik junta direktiban esaten neban "Subida a Arrate"k indar haundixa ekala. Eta "Subida a Arrate"k indar haundixa ekala ez geure lanagaittik, jentia laguntzen zeskulako, jentia asko laguntzen eskun. Fabrikak eta herrixak eta inguru guztiak asko laguntzen eskun. Eta jentia hartu eban "Subida Arrate", hartu eban uste berana dala zegozer. Zegozer berana dala. Eta hori egixa da. Eta orduan jentia laguntzen eban. Eta graziak horritxi atrebidu giñan hórrek ekartzera.

**13. Jacques Anquetil eta Arrateko Igoera**

- **Erref:** AB-108/019
- **Iraupena:** 0:04:59. **Hasi:** 00:37:36. **Bukatu:** 00:42:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Bizikleta-fabrikak

**Laburpena:**

Hainbat txirrindulari ezagun etorri izan ziren Eibarrera; izenak ematen ditu. Jacques Anquetil Arratera ekartzeko ahaleginen nondik norakoak azaltzen ditu.

**Transkripzioa**

- Lehelengo korredoriak ekarri nittuanak izan ziran Jean Dotto eta Huot. Etorri ziran, hórretxek ziran lehelengo saltsa emon etsenak "Subida a Arrate"ri. Hórrek etorri ziran urte bixan.edo etorri ziran. Gero nere galdera, nere buruan nekana, zan ia Anquetil ekartzen neban. Bueno, Louison Bobet ekarri neban lehelengo. Hiru [galdetan] irabazi eban "Vuelta Francia" eta ha ekartzia zer haundixa zan. Eta egin nittun gestiñuak eta Louison Bobet-ek kobratzen estan 90.000 pezeta. 90.000 pezeta! Noventa mil pesetas! Etorri zan. Ha etorri zan eta belodromuan atsaldian jentia pozik: Bahamontes, Loroño eta Louison Bobet Eibarren ikustia zera zan. Gero ba gehixago eta gehixago eta. Esan neban: bueno, ba, etortzen ziran Oldenburg, eta Renato Longo eta Roger de Vlaeminck eta Mastrotto eta etortzen ziran batzuk. Baiña nik, neretako, Anquetil ekartzia nahi neban.

Eta holaxen jun nintzan Parisera. Egon nintzan [Joset]-ekin. [Joset] zan "el manager", managerra, zera, munduko korredorerik famosuenena. Harekin. Eta harek esan estan: 125.000 pezeta. Eta hau asko zan eta esan netsan: "Koño bajatu...". Eta: "Nik ezin detsut. Ba egon zaitte Anquetil-ekin". Eta zer egin neban? Emon estan direkziñua eta berak diar egin etsan Anquetil-i eta "a Ruen".

- Hori zer zan, Juanito, hirurogeita gutxian, ezta?

- Bai, 63 edo 64an pentsatzen dot zala. Eta ni zelan izan naizen beti bastante atrebidua zelan izan naizen, ba, han jua nintzan Anquetil-egana, beran etxera. Eta beran andriak urten estan. Jeanette, andra ona, Eibarrera etorri zan bi bidar edo. Eta: "Zer?". Anquetil-ekin egotia nahi nebala, Jaquesekin egotia nahi nebala. Eta ia nungua nintzan. Espaiñiakua nintzala, Euskal Herrikua, bueno, Donostia aldekoa nintzala. Eta bueno: "Pasa". Berakin Anquetil han eguan. Egin neban hizketan berakin nere franses zer horrekin. Esplikau netsan, esan netsan Anquetil-i gure organizaziñua zelan zan. Zelan... Ze bihar egitten genduan, zelan juaten giñan taillarrik taillar, zelan pasatzen genduzen sobriak tabernetara eta dendetara eta. Egitten genduzela... Berak esan estan: "Baiña holan egitten dozue?" Eta: "Bai. Gure galdera, gure organizaziñua holaxen da. Nik egi-egixa esaten detsut". Eta: "Hombre! Neuk egingo detsat diar. Egon zaitte pixkaten". Diar egin eban eta esan estan: "Eginda dago. Konforme zagoz 20.000 duro?". Eta: "Bai". "Jungo naiz?". "Bai", esan netsan, "hamen dakat kontratua". [Joset]-ek esan estan, kontratua. Eta oindiok akordatzen naiz. Hartu eban eta berak eskribidu eban, firmau eban eta esan estan: "Hor dakazu eta ni jungo naiz".

- Eta Eibarrera etorri zinenean jendeak ez zuen sinestuko.

- "Joe! -esan esten-, hi zoratuta hago!". Esan esten: "Tira, tira, tira". Nik periodisteri esan netsenian Anquetil datorrela eta kontratua zelan nekan ta... Klub Deportibuan esaten esten: "Hik dakaaz -hori guk esaten doguna- hik dakaaz onak, hik, hik! Hori zelan egin dok?" Eta: "A! Badatok. Eta etorriko dok eta bestia". Gero handik egun batzuetara telefonoz diar egiñ eban berak. Nik zelan laga netsan gure direkziñua eta zer guztiak, galdera guztiak Eibarkuak, Klub Deportiboko telefonua eta danak. Telefonotik diagar egin eban, badatorrela. Esan netsen: "Ikusten dok? Ikusten dok? Hor. Nik ez juat, nik, esatiarren egin, berak egin jok diar".

- Eta etorri zen egunean sekulako ambientea, ezta? Inoiz bildu den jenderik handiena.

- "Galerias Preciados"ek preparau eban "un lunch de señor y mía", Anquetil etorri zanian. Andriakin etorri zan. Jeanette, andria. Eta jun zan pozago! Pozago jua zan! Esan estan: "Datorren urtian be etorriko nok. Eta neuk egingo detsat berba [Joset]-i" esan estan. [Joset] zan "el manager", beraren managerra. "Neuk egingo detsat eta datorren urtian be etorriko nok". Hau ambientiau eta hau hamen dagon afiziñua, hamen dagon jente ona, hamen dagoz... Hik esan hestazen hizketak eta esan hestazen gauzak egixa dittuk. Hor".

## 14. Txirrindularitzarako zaletasun handia Euskal Herrian

- **Erref:** AB-108/020
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:42:35. **Bukatu:** 00:43:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

**Laburpena:**

Txirrindulari ezagunak Arrateko Igoeran. Zaletasun handia zegoen eta jende ugari gerturatzen zen bertara, lasterketa ikustera.

**Transkripzioa**

- Zenbat autobus bezela joaten ziren orduan Arratera, Juanito, Anquetil ikustera eta besteak ikustera?  
- Bai, nik esango detsut. Orduan denporan, zu be konturatu zaitte Charly Gaul be konsegidu neban eta Renato Longo, esan detsuten [Braamis] eta Charly Gaul eta Anquetil eta Bahamontes eta Loroño eta Sagardui eta, bueno, zer zan ha! Kotxiak, autobusetan jentia eta. Gaiñera, orduan denporan ez eguan hainbeste kotxe gaur dagon moduan! Baiña neri polizia trafikoko, o sea, Eibarko "jefe de policia" k emon estan neri galdera. Emon estan, esan estan zenbat kotxek igo eban, zenbat autobus igo ean eta motuak ez zittuala kontau. Baiña emon estan: 38-39 autobus, milla eta piku kotxe, eta motuak kontau barik.

**15. Eddy Merckx ekarri nahi, baina ezin**

- **Erref:** AB-108/021
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:43:32. **Bukatu:** 00:46:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Bizikleta-fabrikak

**Laburpena:**

Eddy Merckx txirrindularia ekarri nahi izan zuen, baina ez zuen lortu. Belgikako Fabiola erreginari idatzitako eskutitza. Garai hartan txirrindulariei zenbat ordaintzen zitzaien azaltzen du.

**Transkripzioa**

- Denbora aurrera doakigu, Juanito, eta bukatzen ere joan behar dugu oraindik ere gauza asko komentatzeko baldin baditugu ere. Ekarki zenuten Jaques Anquetil, baina honek ez zuen irabazi eta zuk badakit pena badaukazula Eddy Merckx ekarri nahi zenuen, baina ez zen posible izan, nahiz eta Fabiolari, Belgikako erreginari, karta bat ere idatzi zenion. Eta berak erantzun ere bai.  
- Hori holan da. Hori holan da, bai.  
- Zer zeneukan entxuferen bat Fabiolarekin ala?  
- Ez. Ba guk eskribidu genduan enbajada[ra] eta Fabiolaren direkziñua... Fabiolan izenakin, erregiñaren... "reina de Bélgica", Fabiola. Enbajadara eskribidu gendun. Eta horrek, itxuria, bialdu egin eban. Eta, itxuria, gaiñera guk Eddy Merckx ekartzeko esan genduan: "Joño, Fabiola espaiñola dok eta igual lagunduko jeskuk". Eta nere galdera buruan. Eta jun nintzan eta telefonotik berba egin etsan Eddy Merckx-i. Eta Eddy Merckx konprometiduta eguan. Baiña konprometiduta eguan beste karrera baten. Eta esan eskun sentitzen dabela eta ezin izan dabela egin. Baiña Fabiolak kontestau eskun kartiari. Nik esango dot, gaiñera: badakizue zenbat eskindu jakon Eddy Merckx-i hona etortzeko? 250.000 pezeta.  
- Garai hartan egundoko dirutza izango zen, ezta?  
- Buf! Gaur izango zan bi milloi.

- Zuen garaiko ziklistarik garestiena zein zen? Anquetil izan al zen?  
- Bai, eta Gimondi. Poulidor-ek be, Poulidor-ek kobratzen eban 90.000 pezeta. Gimondik 100.000 pezeta. Charly Gaulek 60.000 pezeta. Anquetilek, esan dot, 100.000 pezeta.  
- Bahamontes lehenengo urtean debalde, baina gero ez, ezta?  
- Ez! Bueno, Bahamontesi zegozer beti emoten jakon. Baiña nik esango dot galdera bat ona: "Subida a Arrate"n izan zan, "Subida Arrate" egitten zan baiña "por invitación". Ez zan nahi dabenak apuntatzerik. Ez. Guk eske holako igoera bat, igoera bat Arratekua, ipintzen badozuz hirurogei korredore, larregi da. Eta guk esaten gendun: "Bueno, guk hartuko dittugu 26-28 korredore altuena. Eta hori igoerori egitteko nahikua dira". Nik holan pentsatzen dot. Behin 28 korredore, 26 korredore, nahikua da igoera bat zortzi kilometrokua edo zazpi kilometro eta erdi egitteko. Nahikua da.

## 16. Emakumezkoen Arrateko Igoera

- **Erref:** AB-108/022
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:46:10. **Bukatu:** 00:47:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

### Laburpena:

Emakumezkoen lasterketa bat egin nahi izan zuten, baina debekatu egin zieten.

### Transkripzioa

- Juanito, eta badakit nesken, emakumezkoen karrera bat egin nahi izan zenuela, baina Pilar Primo de Riverak, nonbait, ezetz esan zuen, emakumezkoak ez zituela nahi praka motzetan ikusi.  
- Ez jata gustatzen gaizki esatia iñogaittik, baiña ez zan portau ezer be ondo.  
- Baina orduan ba al zen emakumezko ziklistarik? Ibiltzen al zen?  
- Bai, baeguazen. Franzian eta.  
- Hemen ez, ezta?  
- Bai, bai. Hamen be ibiltzen ziran. Baiña hamen hónek, zer "femeninas" - zelan zan hori?- "las FET y las JONS" eta ez dakit zer zan. Ha zan hango zer hori, jefiori. Harek esan eskun. Guk federaziñuan egin genduan eta ha sartu zan artian eta harek esan eskun ezetz. Ezetz, andrak ezin dabela bizikletan parte hartu eta. Guk nahi genduan zidarreko... bueno, "bodas de plata" "Subida a Arrate" kuan nahi genduan egittia jubenillak: egin genduzen. Afizionauak: egin genduzen. Beteranuak: egin genduzen. Profesionalak be egin genduzen. Eta nahi genduan bosgarrenko karrera andrena egittia. Eta ez zeskuen laga, ez gure gogua ez zekagulako, baiña ez gendun egin. Baiña egin ziran beste guztiak.

## 17. Arrateko Igoera; txirrindulari ezagunak

- **Erref:** AB-108/023
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:47:23. **Bukatu:** 00:49:16
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Bizikleta-fabrikak

**Laburpena:**

Arrateko Igoeraren inguruko hainbat kontu. Txirrindulari ezagunak: Poulidor eta beste.

**Transkripzioa**

– Juanito, lehen esan duzu Marruecos aldean beti ere Gobernuak organizatzen zuen karrera hartan beti ere marroki batek irabazi behar zuela. Eta askotan pasatu da organizazio askori gehiago interesatzen zaiola izen haundiko batek irabaztea etxeko batek baino. Eta hemen dauzkate Eusebio Velezen deklarazio batzuk esaten zuena: "Aimarrekin batera ailegatu nintzen, Lucien Aimarrekin batera, hura ni baino geroago ailegatu zen gero, hamar minutura, eta harek irabazi zuen. Poulidor-ekin beste behin ere berdinean pasatu zitzaidan". Egia al da zuei ere berdinean pasatzen zitzaizuela? Nahiago zenutela kanpoko izen handi bat jarri izana palmaresean? Kasu honetan Eusebio Velez aipatu dugu, horrelakorik gertatu al zen?

– Bueno, badakizu. Hori nik pentsatzen dot batzuetan normal... Hor dakazu... Iñork ez etsan esan. Baiña neri Poulidor etorri zanian, Wolfshohl alemanekin etorri zan, bixak etorri ziran "Subida Arrate"ra. Eta bizperan igo eben bixak. Eta etorri zan Txokora, tabernara, etorri zan eta esan esten... Poulidor-ek esan estan, franses esan estan: "Bixar seguramente neuk irabaziko dot karrera". "Ene! -esan netsan- Ba irabazten badozu, pozik". Eta: "Ba egingo dittut ahalegiñak, baiña pentsatzen dot irabaziko dotela. Eta Wolfshohl-ek esan estan: "Nik lagunduko detsat. Batak edo bestiak irabaziko dogu". Eta Poulidor-ek irabazi eban. Eta beste urte baten etorri zan eta baita barriz be, barriz irabazi eban Poulidor-ek.

– Baina badakizu esaten duena Eusebio Velezek, behin baino gehiagotan haserre joan zela, ezta?

– Bueno, baiña ez zekan motiborik. Nik Langarikari be esan netsan: "Ez dakazu motiborik holan jartzeko. Sprintian denpora igualian zertu dira. Eta esan estan Langarikak neri han sprintian segundo bat etara etsala. Ez da egixa. Nik hamen dakat klasifikaziñua eta hamen ipintzen dau "mismo tiempo". Eta oin segundo bat kendu detsa kontrarrelojian". Segundo bat edo bi, ez dakit zer kendu etsan.

**18. Eibarko Klub Deportiboa vs "Club Ciclista Eibarrés"**

- **Erref:** AB-108/024
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:49:16. **Bukatu:** 00:51:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola

**Laburpena:**

Eibarko Klub Deportiboa eta "Club Ciclista Eibarrés"; batak Arrateko Igoera antolatzen zuen eta besteak "Bicicleta Eibarresa". Bi elkarteen arteko harremana ez zen batere ona; batzuek dirua irabazi eta besteak galdu egiten zutela esaten omen zuten. Deportibokoek dirua batzeko postulazioa ere egiten hasi ziren.

**Transkripzioa**

- Bueno, Juanito, oraintxe denbora erabat aurrera doakigu eta azken bi galderetan sartu behar naiz. Eibarren bi zineten, "Club Deportivo" Arrateko "Subida" antolatuz eta "Club Ciclista Eibarrés", zuek baino geroago sortu zena, hamaika urte geroago, eta Euskal Bizikleta -garai hartako "Bicicleta Eibarresa"- egiten zuena. Elkarren artean zer moduz konpontzen zineten Eibarko "Club Ciclista" eta Eibarko "Club Deportivo" kook? Ondo konpontzen zineten ala bazegoen zuen artean Bahamontes-Loroño antzeko pikerik ala nola funtzionatzen zenuten?

- Ez, ez zekan, ez zekan zerikusirik Bahamontes-Loroño. Pasatzen zan eurak egitten eben "Bicicleta Eibarresa" eta guk egitten gendun "Subida Arrate". Eta eurak, nik ez dakitt zegaittik, baiña esaten eben dirua galtzen ebela eta guk "Subida a Arrate"-n dirua irabazten genduala. Eta nik, egixa esanda, hainbeste urtian egon gara eta, gaiñera, komisiño ziklistak eta hórrek egin dittugun zer guztiak, guk egin dittugunak, lan guztiak, eta batak emonda... Gaiñera, esango dot, orduan ez eguan "Gobierno Vasco"rik eta ez eguan telebisiñorik eta ez eguan ezer be. Zeguan... radixua eguan bakarrik. Eta akabo! Eta periodikuak. Eta guk dirua topatzen genduan, hórrek, jente guzti hori, ekartzeko. Eta hori, korredore famatuok ekartzeko egitten genduzen esaten dana bihotza eta estomagua eta dana bat. Egitten gendun "tripas corazón" esaten dan moduan horra lilegatzeko. Gero postulaziñua hasten zan. Postulaziñuan nik... Nere alabiak hor daka pastelerixia, Barrenetxenekua, zerian, Donostian. Ha alabia eta beste alaba bat eta lagunak eta hárek egitten eskuezen banderitak. Orduantxe pentsau neban postulatzia karreteran eta harek postulaziñuak laguntasun haundixa emongo eskula. Eta orduan duro bat kobratzen zan, nahi dabenak emotia. Eta banderitak ipintzen genduzen: "Club Deportivo-Subida Arrate", ezta? Eta, gaiñera, esaten eskuen, orduan denporan esaten eskuen: "Kotxiak bandera nazionala eruan bihar zeban". Bandera nazionala? Aiba! Guk karrera egitten gendun eta guk ez genduan nahi. Guk... Guretako zan karrera eta akabo! Klub Deportibua eta Eibarkua. Eta akabo!

**19. "Club Ciclista Eibarrés" eta "Bicicleta Eibarresa"**

- **Erref:** AB-108/025
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:51:31. **Bukatu:** 00:53:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

**Laburpena:**

"Club Ciclista Eibarrés"ek 15 urtean ez zuen "Bicicleta Eibarresa" antolatu eta nazioarte mailan eskubide guztiak galdu zituen lasterketa hura berriz ere martxan jartzeko.

### Transkripzioa

- "Club Ciclista Eibarrés" eta "Club Deportivo Eibar" biak bat egiteak eta Euskal Bizikleta sortzeak, Juanito, iruditzen zaizu Eibarko Bizikletari mesede egin diola?

- Bai! Asko, asko. Esan detsut lehen, baiña kanbixau egin dot konbersaziñua. Baiña esango detsut: orduan haxe pikia eguan. Eta ez zan gorrotua bata bestiari. Guk geure gauzia egitten genduan eta eurak egin zeixela eurena. Eta hárek galtzen baeben dirua guk ez genkagun kulparik. Eta gero laga egiñ eben. Eta laga ebenian, egon ziran hamabost urte egin barik. Eta gero nahi zeben barriz "Bicicleta Eibarresa" egittia eta ia zelan eta bestia eta ia batzarra egingo zan. Neri diagar egin esten eta Hotel Arraten, Eibarko Hotel Arraten, egin zan batzarra. Eta egin genduan batzarra Hotel Arraten eta han llegalu giñan danok. Neri esplikau eta nik esan neban: "Ordua dok. Ordua dok!". Behin edo behin Eibarren "Club Ciclista" alde batetik eta gu beste aldetik, bata bestiarri kontra egitten gendun. Hárek eskatzen eben euren dako eta guk eskatzen genduan guretako. Eta hori batzarrori egittia nik pentsau neban ona zala. Ona zala, batetik, Eibarko herrixandako. Eta, bestian, ziklismuagaittik. Eta holaxen llegalu zan bat egittia. Baiña "Club Ciclista" k hamabost urtian zelan ez zeban egin hori karreriori, "internacionalmente" deretxo guztiak galdu zittuan, zegaittik "Federación Internacional de Ciclismo"-k daka reglamentuan, karrera bat internazionala danian, hamar urtian ez badau egitten, kategorixia eta deretxo guztiak galtzen dittuala.

## 20. Umetako okerkeriak

- **Erref:** AB-266/002
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:00:39. **Bukatu:** 00:04:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

### Laburpena:

1917an jaio zen Ibarkurutzean. Umetan okerrak ziren; lapurreta mordoa egiten zituzten (mojetan, dendetan eta abar), eta harrapatutakoa saldu egiten zuten. Behin harrapatu egin zituzten eta epaitegira eraman.

## 21. Umetan egindako okerkeria

- **Erref:** AB-266/004
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:06:38. **Bukatu:** 00:07:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

### Laburpena:

Umetan denda batean txorizoak lapurtu zituzten, baina moztu gabe zeuden eta txorta osoa eraman zuten kaletik arrastaka.

## 22. Eibarren gutxienez sei igerileku zeuden

- **Erref:** AB-266/005

- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:07:52. **Bukatu:** 00:11:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

**Laburpena:**

Errekan jolasean ibiltzen ziren sarri; umeentzat jolasleku bikaina zen: Ariatza, esaterako. Igerian ere egiten zuten bertan. Guztira Eibarren 6-7 igerileku zeuden (presa edo kunboak zirenak). Izendatu eta deskribatu egiten ditu.

## 23. Gaztetan mendian txabolak egiten zituzten

- **Erref:** AB-266/007
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:12:20. **Bukatu:** 00:14:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

**Laburpena:**

"Estixa" inguruan (Eztiaga), txabolak egiten zituzten gazte denboran. Jende asko joaten zen bertara; umeak jolasean egitera eta nagusiak "kutxillora" jokatzera. Zela jokatzeko azaltzen du.

## 24. Tokea, kaniketako jolasa

- **Erref:** AB-266/008
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:14:16. **Bukatu:** 00:15:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena:**

Umetan sarri kaniketan egiten zuten. Tokean ere asko egiten zuten.

## 25. "Kiputzaneko" zinea

- **Erref:** AB-266/009
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:15:25. **Bukatu:** 00:17:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

**Laburpena:**

Kiputzaneko frontoia non zegoen esaten du. Bere osabarena zen. Zapatuetan filmak botatzen zituzten eta sarritan joaten ziren. Zer ikusten zuten kontatzen du. "Los ojos de Satanas" oso ezaguna izan zen eta euren jolasak pelikula horren arabera egiten zituzten.

## 26. Zineak Eibarren

- **Erref:** AB-266/010

- **Iraupena:** 0:00:23. **Hasi:** 00:17:52. **Bukatu:** 00:18:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Zinema

**Laburpena:**

Eibarko zinemak: Salon Teatro, "Kiputza" eta Kruzeta.

## **27. Dantzaldiak Salon Teatroan eta Rialtoan, e.a**

- **Erref:** AB-266/011
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:18:15. **Bukatu:** 00:20:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Dantza

**Laburpena:**

Salon Teatroan dantzaldi asko egiten ziren. Gerra ostean dantzaleku garrantzitsuena Rialtoa zen. Deskribatu egiten du.

## **28. 1930ean Deban urperatu zen itsasontzia**

- **Erref:** AB-266/014
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:22:48. **Bukatu:** 00:26:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena:**

1930 inguruan Deban itsasontzi bat urperatu zen. Besteak beste Don Ciriaco Agirre mediku ezaguna hil zen istripu hartan. Elizkizuna izugarria izan zen: Eibar guztia negarrez kalean.

## **29. Ibarbe eta Ibarburutze ingurua**

- **Erref:** AB-266/015
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:26:04. **Bukatu:** 00:27:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

**Laburpena:**

Ibarburutzean zegoen Ibarbe etxea, parrokoaren etxea zen. Eugenio Urroz izan zen garai batean parrokoa; ona zen, baina gogorra.

## **30. Lapurretan Indianokoaren ortuetan**

- **Erref:** AB-266/016
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:27:57. **Bukatu:** 00:30:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

**Laburpena:**

Lapurretan egiten zuten Indianokoaren ortuetan, Ardantza inguruan.

**31. Matsari ingurua zelakoa zen**

- **Erref:** AB-266/017
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:30:44. **Bukatu:** 00:33:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

**Laburpena:**

Matsarira jende asko joaten zen. Ingurua zelakoa zen. Orbeaneko tailerrak, galdategiak, latsarria, sagardotegiak, labaderoa...

**32. Matsari ingurua ikusgarria zen**

- **Erref:** AB-266/018
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 00:33:37. **Bukatu:** 00:34:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak

**Laburpena:**

Matsari ingurua ikusgarria zen: erreka ederra, arrain mordo... Agorrek egin eta zarbo-ekzkaileak harrapatzen zituzten.

**33. Eibarko eskolak**

- **Erref:** AB-266/019
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:34:05. **Bukatu:** 00:37:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

**Laburpena:**

Garai batean eskolak non zeuden azaltzen du: Udaletxean, Frontoi zaharrean eta Jardinetan. Gaztaina sasoian, eskolara eraman eta bertako berogailuan erreta jaten zituzten.

**34. Juanito "Txoko" eta txirrindularitza**

- **Erref:** AB-266/022
- **Iraupena:** 0:05:44. **Hasi:** 00:42:43. **Bukatu:** 00:48:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

**Laburpena:**

Txirrindularitzan nola hasi zen kontaktzen du (profesionalak jautzia, Frantzia 1937an). Hendaia inguruan pare bat lasterketa egin zituen eta biak irabazi. Gero Eibarrera itzuli eta Valenziagarenean hasi zen lanean.

**35. Eibarko Klub Deportiboaren egoitza zaharra**

- **Erref:** AB-266/023
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:48:27. **Bukatu:** 00:49:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

**Laburpena:**

Club Deportivo Eibar. Gerra aurreko lokala Kalbetoi kalean zegoen, Tupi taberna gainean. Gerra garaian itxi eta ondoren zabaldu egin zuten.

**36. Bizikletan ibiltzen ikasten**

- **Erref:** AB-266/024
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:49:51. **Bukatu:** 00:51:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

**Laburpena:**

7 urterekin hartu zuen lehenengo bizikleta. Bost lagun ibiltzen ziren bizikleta bakarraren gainean.

**37. Aguazilekin izandako anekdota polita**

- **Erref:** AB-266/025
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 00:51:02. **Bukatu:** 00:55:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Udal langileak

**Laburpena:**

Umetan "Cebollas" (edo "Mallabi") eta "Alfiler" aguazilekin gertatutako pasartea kontaktzen du.

**38. Eibarko lehenengo bizikletak**

- **Erref:** AB-266/028
- **Iraupena:** 0:05:07. **Hasi:** 00:57:55. **Bukatu:** 01:03:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Bizikleta-fabrikak

**Laburpena:**

1925 inguruan Hermógenes Larrañagak (GAC-ko montadorea), bizikleta berezia egin zion. Garai hartan oraindik oso bizikleta gutxi zeuden Eibarren. Gero hasi ziren Beistegi eta Orbea lantegietan bizikletak egiten. Bizikleten prezioa.

**39. Eibarko taberna giroa 1920 inguruan**

- **Erref:** AB-266/030
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 01:05:47. **Bukatu:** 01:09:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Taberna giroa

**Laburpena:**

Taberna giro ederra zegoen Eibarren. Arratsaldeko seietan tabernara joan eta "baso haundixa" eskatzen zen (ia litro batekoa). Afari-meriendak ere sarritan egiten ziren.

**40. Asteburuetan Bilbotik emakumeak etortzen ziren Eibarrera**

- **Erref:** AB-266/031
- **Iraupena:** 0:05:50. **Hasi:** 01:09:45. **Bukatu:** 01:15:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Taberna giroa » Putetxeak

**Laburpena:**

Zezenplaza inguruan putetxe bi zeuden. Larunbat eguerdian heltzen ziren Bilbotik neskak Eibarko tren geltokira. "Desfilea" egoten zen geltokitik zezenplazara. Beraiek gazteak ziren eta neskei begira egoten ziren. Kanpotik jende asko etortzen zen.

**41. Eibarko taberna giroa gerra ostean**

- **Erref:** AB-266/032
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:15:35. **Bukatu:** 01:17:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Taberna giroa

**Laburpena:**

Gerra aurrean txikiteoa klasikoa izaten zen, tabernarik taberna. Eguerdian ardo zuria eta iluntzean beltza edaten zuten.

## 42. Lehen erreka osoa zegoen bistan

- **Erref:** AB-267/002
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:02:29. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak

### Laburpena:

Urkizu ingurua zelakoa zen: erreka, Bartoloneko zubia eta abar. Eibarren erreka osoa agerian zegoen. Udaletxea erreka gainean egin zen. Gerra osterarte Areatza inguru osoan erreka begien bistan zegoen. Errekaren ibilbide osoa azaltzen du.

## 43. Garai bateko Eibar ederra

- **Erref:** AB-267/003
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:06:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

### Laburpena:

Lehenago Eibar politagoa omen zen; denak ziren ezagunak gainera. Elkartasun handia zegoen, beti elkar laguntzeko prest izaten zen jendea: diru-batzeak ere sarritan egiten ziren, esaterako.

## 44. Lehenago, lana zen nagusi

- **Erref:** AB-267/006
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:09:24. **Bukatu:** 00:10:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

### Laburpena:

Lehenago, lana sakratua zen; ez zen erraza izaten jai-egunak hartzea. Larunbatetan ere lana egin behar izaten zen. "Zapatu ingelesa" lantegi batzuetan bai eta beste batzuetan ez zen egiten.

## 45. Eskola publikoak eta praileak

- **Erref:** AB-267/008
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:11:26. **Bukatu:** 00:13:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

**Laburpena:**

Eskolatik sarritan mendira joaten ziren, ibilalditxoak egitera, maisu eta guzti. Eskolan ez zuten ezer ikasten; praileetan bai, beste maila bat omen zuten eta.

**46. Arraindegi eta Birjiñape kaleak**

- **Erref:** AB-267/010
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:15:17. **Bukatu:** 00:18:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

**Laburpena:**

Arraindegi kalea eta Birjinapea zelakoak ziren eta non zeuden kontatzen du. Batetik bestera joateko tunela zegoen. Barrenkaleak sekulako aldapa zuen.

**47. Urki ingurua, zoragarria**

- **Erref:** AB-267/011
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:18:33. **Bukatu:** 00:19:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

**Laburpena:**

Urki ingurua zelakoa zen: zelaiak, baserriak eta ermita ederra, besterik ez. Polita omen zen. Jende asko bertara egunpasa joaten zen.

**48. Umetako okerkeriak**

- **Erref:** AB-267/014
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:21:54. **Bukatu:** 00:23:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

**Laburpena:**

<p>Hamahiru urterekin okerra izan beharra dagoela dio, gaiztoa ez. Sagar lapurretan ibiltzen ziren.</p>

**49. Txoko eta Ezkerra gaitzizenak**

- **Erref:** AB-267/015
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:23:56. **Bukatu:** 00:26:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

**Laburpena:**

"Txoko" gaitzizena zela ipini zioten kontaktzen du. Bera Juanito Ezkerra zen gerra aurrean, baina Txoko taberna ipini zuenean aldatu egin zioten. Ezkertiak zirenez, aita eta aitita, Ezkerra jarri zioten izena tabernari.

**50. Oporretara baserrira**

- **Erref:** AB-267/016
- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 00:26:20. **Bukatu:** 00:30:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Aisia » Oporrak

**Laburpena:**

Udako oporretan, jendeak Deban "baineroa" hartzen omen zuen. Zer zeregin zituen kontaktzen du. Etxekoak Debara joaten ziren, baina bera San Juanetatik irailaren hasierararte baserrira joaten zen osabarekin; zoragarri ibiltzen zen.

**51. Oporrak baserrian lanean**

- **Erref:** AB-267/018
- **Iraupena:** 0:05:34. **Hasi:** 00:31:14. **Bukatu:** 00:36:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserrira » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

**Laburpena:**

Behiek ere ezagutu egiten zuten. Osaba pozik egoten zen, lan handia egiten zuelako Juanek baserrian. Artoa etxera eramateko zela prestatzen zuen kontaktzen du. Oporrik onenak baserrian pasatzen zituen. Gerezi asko jaten zituen; bere lehengusinak azokan saltzen zituen. Arrautzak batzen abila omen zen, zaindu egiten zituen eta.

**52. Garia batu eta ogia egiterainoko prozesua**

- **Erref:** AB-267/019
- **Iraupena:** 0:05:45. **Hasi:** 00:36:48. **Bukatu:** 00:42:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserrira » Baserriko lanak » Garia

**Laburpena:**

Makinarekin garia jotzen aritzen zen. Igitaiarekin lastoa txiki-txiki eginda abereei ematen zieten. Garia zela ebatzen zuten kontaktzen du. Gariarekin errotara joaten zen, astoa hartuta. Errotariak ez zuen dirurik eskatzen, gariaren parte bat baino. Ogia baserrian bertan egiten zuten. Baserriko bizimodua gustoko zuen, baina udan zelako.

**53. Bizikletak alokatzeko dendak**

- **Erref:** AB-267/020

- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:42:33. **Bukatu:** 00:44:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Bizikleta-fabrikak
- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

**Laburpena:**

Gerra aurrean bizikletak alokatu egiten zituzten. Non zeuden kontaktzen du. Bizikletak zelakoak ziren azaltzen du. Garai hartan lantegietan erosten ziren (GAC, BH eta Orbea), ez dendetan.

## **54. Eibarko bizikleta-lantegiak: GAC, BH, Orbea, Norma, Abelux, Etxasa**

- **Erref:** AB-267/021
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:44:56. **Bukatu:** 00:48:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Bizikleta-fabrikak

**Laburpena:**

Bizikleta lantegi garrantzitsuenak GAC, BH eta Orbea ziren. Gerora Norma eta Abelux ireki zituzten. Etxasa ere sortu zen (Pagei kalean). Lantegi askotan bizikletentzako piezak egiten zituzten. Emakumeen lana bizikletak eskuz margotzea eta gurpilak zentratzea izaten zen.

## **55. Arrateko igoera eta ziklokros txapelketak**

- **Erref:** AB-267/022
- **Iraupena:** 0:06:00. **Hasi:** 00:48:39. **Bukatu:** 00:54:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

**Laburpena:**

1950-1965 urteetan egin ziren txirrindularitza-lasterketen inguruko istorioak kontaktzen ditu. Juanito Club Deportivo-an sartu zen eta Arrateko Igoerak antolatzen hasi zen. Txirrindulari ezagunek parte hartzen zuten: Langara, Barrutia, Langarika... Ziklokros txapelketak ere antolatu zituen, 6 urtetan jarraian. Diru-batzea egiten zuten. Diru bila ibili behar izaten zuen.

## **56. Lokal berria Club Deportivo-arentzat**

- **Erref:** AB-267/023
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:54:39. **Bukatu:** 00:57:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

**Laburpena:**

Club Deportivo-aren lokal berria zabaldu zuten 1950 inguruan. Dirua eskuratzeko denetik egin zuten. Boxeo jaialdiak ere antolatu zituen.

**57. Club Detortivo-aren sorrera eta Juanitoren karguak**

- **Erref:** AB-267/024
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:57:24. **Bukatu:** 00:58:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

**Laburpena:**

1924an Club Deportivo-a sortu zen eta atletismoa, mendia, pilota eta txirrindularitza ziren arloak. 38 urtetan egon zen Juanito Txirrindularitza Batzordean (lehendakari 6 urtez). Euskal Herri eta Espainia mailan beste ardura batzuk ere eduki zituen.

**58. Eibarren antolatutako txirrindularitza lasterketak**

- **Erref:** AB-267/026
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:59:20. **Bukatu:** 01:02:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

**Laburpena:**

Arratera Igoerara txirrindulari oso ezagunak ekarri zituen. Eibar-Madril-Eibar gerra aurrean oso ezaguna zen, Club Ciclista-k antolatuta. Eibar-Deba-Eibar, "Vuelta a la Costa" eta Premio San Juan ere izaten ziren. Eibarren txirrindulari onak gutxi zeudela dio: Bastida, Truebatarrak, Monterotarrak, Carretero... Mula, Carro eta Carretero omen ziren ezagunenak Eibarren.

**59. Juana Caballo, garbitzaile nekaezina**

- **Erref:** AB-267/028
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 01:02:23. **Bukatu:** 01:05:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

**Laburpena:**

Juana Caballo izeneko emakume batek Eibarko atariak eta etxe askotako arropak garbitzen zituen. Lanaren Domina eman zion Eibarko Udalak. Juanari gertatutako pasarte bat kontatzen du.

## 60. Ignacio Pagoaga Arratera kotxearekin igotako lehenengo gizona

- **Erref:** AB-277/003
- **Iraupena:** 0:07:43. **Hasi:** 00:01:59. **Bukatu:** 00:09:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

### Laburpena:

Ignacio Pagoaga Arratera lehenengo aldiz kotxearekin igo zen gizona izan zen. Etxe oneko gizona. Kotxe bat erosi zuen eta Arratera igo nahi, baina bidea osorik eginda ez zegoenez, Akondia Baserriko baserritarraren laguntzarekin lortu zuen bere nahia betetzea. Hiru egun eta idien laguntza behar izan zuen. Arratera igo eta gero, gurutzeari buelta eman nahi zion. Honetarako, idiak lotu behar izan zizkion kotxeari.

## 61. Baserritarrak oinez Eibarrera

- **Erref:** AB-277/007
- **Iraupena:** 0:05:46. **Hasi:** 00:11:02. **Bukatu:** 00:16:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

### Laburpena:

Baserritarrak Eibarrera oinez etortzen ziren astoa ondoan hartuta; gehien bat emakumeak. Agiña, Markina, Mallabi, Elgeta, Zaldibar... inguruetako baserritarrak. Goizetan astoak goraino kargatuta etortzen ziren, merkatu plazan beraien produktuak saltzeko. Lehenengo lana esnea banatzea izaten zen. Batzuetan dena saltzen zuten eta bestetan ez, baina kasu horietan norbaiti ematen zioten soberan gelditutakoa.

## 62. Astoa eta pipermina

- **Erref:** AB-277/008
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:16:48. **Bukatu:** 00:17:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

### Laburpena:

Juan eta beste bi lagunek, egun batean asto bati ipurditik pipermin bat sartzea pentsatu zuten. Astoari erreakzioa egin zioenean korrika batean irten behar izan zirela kontatzen du.

## 63. Gizon baserritarra ferietara eta emakumea kalera

- **Erref:** AB-277/010
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:17:50. **Bukatu:** 00:19:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena:**

Gizon baserritarrak Eibarrera ez ziren asko etortzen. Durangoko San Antonio eta Elgoibarko Urte Zaharreko feria egunean etortzen ziren gehien bat. Emakumea izan da kalera gehien bajatu dena.

**64. 100 kilo arto eraman eta 75 kilo irin itzuli**

- **Erref:** AB-277/011
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:19:01. **Bukatu:** 00:21:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserría » Baserriko lanak » Errota
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena:**

Lehen baserritar gehiago zeuden. Arrate inguruko baserrietan gari asko egiten zen. Juanek baserritik behin edo behin jaitsi zuen garia errotara. 100 kiloko zakua jartzen zioten astoari. Errotatik pasa eta gero 75 kiloko irin-zakua itzultzen zizuten. Ez zen lan hau ordaintzen; ordaintzeko modua errotaria gari kilo batzuekin gelditzea zen. Baserritarren artean laguntasun handia zegoen. Baten batek zerbait behar bazuen, ondoko baserrikoak laguntzen zion.

**65. Lapikotik ahora**

- **Erref:** AB-277/012
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:21:52. **Bukatu:** 00:22:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

**Laburpena:**

Garai batean ez zuten platerik erabiltzen; denek leku berdinetik jaten zuten. Lapiko handi bat jarri eta denek hortik jaten zuten. Hasieran Juani ez zitzaion asko gustatu jateko modu hau, baina berehala ohitu behar izan zen.

**66. Usartzako erromerian neska-laguntzen**

- **Erref:** AB-277/017
- **Iraupena:** 0:05:11. **Hasi:** 00:32:35. **Bukatu:** 00:37:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

**Laburpena:**

Baserritarren eta kaletarren artean beti egon da harreman ona. Usartza, Azitain, Maltzagan.. erromeriak egoten ziren eta erromeria hauetara baserrietako neska guztiak joaten ziren. Usartzako erromeria hauetako

batean, Juan Markina alderantz joan zen neska batekin, eta bat-batean euri zaparrada bat hasi zen eta neska korrika irten zen, Juan bertan bakarrik utzita. Gau guztia galduta ibili zen. Goizaldean Mallabi ondoan zegoela konturatu zen. Ez zen berriro neska-laguntzen ibili baserritarrek.

## 67. "Orduan takoi barik be, neskak polittak zian"

- **Erref:** AB-277/019
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:42:13. **Bukatu:** 00:44:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

### Laburpena:

Juanek oso ondo gogoratzen du garai batean, abarketak bakarrik erabiltzen zituztela; zapatak oso garestiak baitziren. Neguan ezin zituzten abarketak jantzi, baina baserritarrek kotxeen gurpilen zati bat jartzen zioten eta horrela abarketa ez zen bustitzen. Beltzak, zuriak edo urdinak izaten ziren.

## 68. Eibarko udaletxearen sorrera eta inaugurazioa

- **Erref:** AB-277/020
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 00:44:40. **Bukatu:** 00:48:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

### Laburpena:

Eibarren dena erreka zen; Olarrean hasi eta Azitain arte erreka bistan zegoen. 1890 inguruan Iturrioz jarri zen alkate eta bera izan zen erreka estaltzearen arduradun. Arrate Hoteletik, Dos de Mayo arte estali zuten erreka. Erreka estali eta gero, udaletxea eraiki zuten gainean. Primerako udaletxe bat, 300.000 pezetarekin. 1901. urtean inauguratu zuten.

## 69. Eibarko erreka obrak

- **Erref:** AB-277/022
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:52:57. **Bukatu:** 00:54:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

### Laburpena:

Juanek udaletxeak egindako obra bat komentatzen du. Garai batean errekan harriak zeuden eta horien ondorioz Eibarren uholdeak egoten ziren. Erreka estaltzeko obrarekin hasi zirenean, harri horiek kendu eta erreka ingurua txukundu zuten. Horri esker Eibarren ez da uholde gehiago egon.

## 70. Otolá-Erdi baserriko lautadan futboleán

- **Erref:** AB-277/023

- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:54:40. **Bukatu:** 00:57:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Aisia » Kirola » Futbola

#### **Laburpena:**

Juan umea zenean, Txantxa-Zelain jolasten zuten futbolean. Gerra aurretik Txantxa-Zelain lima fabrika bat zegoen. Txantxa-Zelaiz gain, Otola-Erdiko baserriaren eta haren ondoko okindegiaren artean lautada bat zegoen. Union Deportiva Eibarresak Otola-Erdiko baserrikoei lautada hori erabiltzearren alokairu bat ordaintzen zien.

### **71. "Vuelta a la Costa" txirrindularitza karrera kamioi batean**

- **Erref:** AB-277/025
- **Iraupena:** 0:05:41. **Hasi:** 01:00:28. **Bukatu:** 01:06:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

#### **Laburpena:**

Eibarren ez da txirrindulari ezagunik egon, nahiz eta batzuk onak izan: Mardaras, Iturriaga... Gerra ostean txirrindulari gehiago irten ziren. Garai horietan tranpa asko egiten ziren. "Vuelta a la Costa" egin zen urte batean, Mardaras eta Iturriaga kamioi batean sartu ziren karrera aurrera egiteko. Hala eta guztiz ere, ez zuten irabazi.

### **72. Bittor Sarasketa eta Alfontso XIII.aren arteko harremana**

- **Erref:** AB-277/030
- **Iraupena:** 0:05:11. **Hasi:** 01:15:14. **Bukatu:** 01:20:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

#### **Laburpena:**

Bittor Sarasketa kalea, lehen Grabadores deitzen zen. Grabadores deitzen zen garai horretan Bittor Sarasketak (aitak) adiskidetasun handia egin zuen erregearekin, Alfontso XIII.arekin. Ehizara joaten ziren biak batera. Bien arteko harremana oso ona zen. Harreman honen ondorioz jarri zioten Grabadores kaleari Bittor Sarasketa izena. Inaugurazio eguna, egun handia izan zen.

### **73. Gerra aurreko futbol zaletasuna**

- **Erref:** AB-278/004
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:09:39. **Bukatu:** 00:13:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Futbola
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

**Laburpena:**

Eibarren, gerra aurretik, futboleko jolasteko ohitura handia zegoen. Otolan Erdiko baserriaren ondoko zelaian jolasten zen. Bertatik irten zen Ziriako Errasti. Alavesera joan zen futboleko jolastera, baita Madrilera ere. Honez gain, gerra aurrean Athletic Klubean bi eibartar egon ziren; Mugerza eta Roberto. Bi hauek selekzioarekin jolastera joan ziren. Beste jokalaririk ezagun bat Ramon Gabilondo izan zen. Ramon berez medikua zen baina "Athletic Aviacion" taldean ibili zen futbolari.

**74. Eibarko txirrindularitza lasterketak**

- **Erref:** AB-278/006
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:14:03. **Bukatu:** 00:14:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

**Laburpena:**

Eibarren txirrindularitza lasterketa asko egiten ziren: Eibar-Deba-Eibar, Eibar-Madril-Eibar, "Gran Premio de San Juan", "Vuelta a la Costa". Errepublikara garaian: "Gran Premio de la Republica". Gerra ostean hasi zen "Bicicleta Eibarresa" eta "Subida a Arrate". Lehenengo "Subida a Arrate" 1943an izan zen, irabazlea Pedro Zugasti.

**75. "Subida a Arrate" lasterketaren hastapenak**

- **Erref:** AB-278/007
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:14:57. **Bukatu:** 00:17:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

**Laburpena:**

1943an izan zen lehenengo "Subida a Arrate". Pedro Zugastik irabazi zuen. Lasterketa hau Eibarko Club Deportiboak mendiko irteeren sari banaketa antolatzen zuenean izaten zen. Sari banaketa hau Arraten izaten zen. Oraingo ibilbide bera zen.

**76. "Subida a Arratera"-ra gonbidapen bidez**

- **Erref:** AB-278/008
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:17:29. **Bukatu:** 00:20:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

**Laburpena:**

1943an antolatu zuen lehenengo "Subida a Arrate". Sariak hobetu zituzten,

baita txirrundulariak ere. Garai batean lasterketa hau egiten zenean, zerrenda bat jartzen zen eta edonor apuntatu zitekeen. Baina Juan antolatzaile moduan jarri zenean, gonbidapen bidez joaten ziren txirrundulariak. Horrela, txirrundularirik onenak joaten ziren. Gonbidatuta joaten ziren txirrundulari guztiei ordaintzen zieten.

## 77. Tailerrez tailer diru-eskean

- **Erref:** AB-278/009
- **Iraupena:** 0:06:31. **Hasi:** 00:20:06. **Bukatu:** 00:26:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrundularitza

### Laburpena:

Juan "Subida a Arrate" antolatzeko tailerrez tailer joaten zen diru eske. Orbeak urte batean 30.000 pezeta eman zizkion. Juanek hori paper batean jartzeko esan eta Beistegirengana joan zen. Beistegik beste 30.000 pezeta eman behar izan zizkion eta Juanek, Orbeari bezala, hori paper batean idazteko eskatu zion. Bi paperekin G.A.C.-ra joan zen. Garai haietan tailerrek oso jarrera ona zuten.

## 78. "Vuelta de España" motorrean

- **Erref:** AB-278/014
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:46:19. **Bukatu:** 00:48:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrundularitza

### Laburpena:

Bederatzi aldiz joan zen motorrean "Vuelta de España" lasterketan. Juanek hainbat lan izan zituen txirrundularitzaren inguruan: "Jefe de Comisarios", "Enlace Director", "Juez de Arbitro", "Comisario Internacional". Marokoko lasterketa batera ere joan zen hiru aldiz.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
*2026-05-30*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkartea  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com